

## 10. INFORMAZIO FITXA

## SANTUTEGIKO ZIDORRA

### KOKALEKUA

#### Udalerria

Abadiño

#### Udalerraren kod.

001

#### Eskualdea

Durangaldea

#### Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

#### Orriak

08729

08730

### FITXA TEKNIKOA

#### Homologatua

EZ

#### Gutxi gorabeherako denbora

Ordu 1

#### Gehieneko desnibela (m)

160

#### Luzera (km)

4

#### Zailtasuna

Erraza

#### Trazatu mota

Biribila

#### Ibilbidearen hasiera

Urkiolako santutegia


#### Ibilbidearen amaiera

Hiru gurutzeen behatokia

#### Interesa

Kultura, etnografia, natura, paisaia

#### Ibilbidearen profila



**Mapa/Krokisa**



### **Nola Iritsi**

Urkiola mendatea Otxandioaren eta Mañariaren artean dago, baina izatez Abadiño da. Bertara heltzeko, Durangotik Gasteizerako errepidea hartuko dugu; Izurza eta Mañaria udalerrietatik igaro ondoren, Urkiolako Santutegiraino igoko gara; edo, bestela, Gasteiz Bizkaiko Jaurerriarekin lotzen zuen antzinako errege-bidetik joan daiteke, Legutiotik eta Otxandiotik igarota. BI-623 errepidea da (Arabán A-623 errepidea).

### **Deskribapena**

Santutegitik errepidera jaitsi, berori zeharkatu eta, jatetxeko aparkalekuan, Toki-Alai Interpretazio Zentrorako hormigoizko bidea hartuko dugu. Bertatik Aldazitara atsedenekurako ibilbidea seinaleztaturik dago balizekin eta geziekin. Atsedenekura heldu, errepidea zeharkatu eta, lehenengo bidegurutzean, eskuineko bidea hartuko dugu, ibaiari jarraituz; gero, ezkerretarako desbideratzea hartuko dugu, Santa Apolonia basilizarantz, betiere bidea adierazten duten balizei jarraituz. Baselizatik San Antoniora, horiek lerro zuzenean lotzen dituen galtzadatik joango gara. Ibilbidearen hasieran gaude, baina guruzpidetik jarraituko dugu, geure bisitaldia osatzeko. Kristo Santua basilizaren ondotik igaro eta guruzpidearen amaieran hiru gurutze aurkituko ditugu; gainera, zonako mendien panoramika bikaina dago.

## **IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK**

### **Trazatua**

Ibilbidean zehar hormigoizko bide-zatiak, harri soltezko bideak, lurrezko bideak eta galtzadak aurkituko ditugu.

### **Gurpil-aulkietarako gauza**

Ez

### **Norabideko seinaleztapena**

Ibilbide osoan balizak daude.

### **Informazioko seinaleztapena**

Ibilbide osoan zenbait alderdiri buruzko informazioko panelak daude: Letona etxola, landaredia, etab.

## **ARGAZKIAK**

**Toki-Alairen eta Aldazitalaren arteko bide-zatia.**



**Ibilbidean zeharreko informazioko seinaleztapena.**



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

**Norabideko seinaleztapena ibilbidean.**



**Iluntzea parkean.**



**Toki-Alairantz.**



Sustatzailea:

*Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea*

Kontsultorea:

*NK gestión ambiental y cultural S.L.*

Urtea:

2005

**Toki-Alai Interpretazio Zentroa**



## BALIABIDEAK

### Paduako San Antonio eta San Antonio Abadea Santutegia

Bizkaian deboziorik handiena sortzen duen tenpluetariko bat da. Gaur eguneko eraikina XX. mende hasieran hasi ziren eraikitzen, baina leku horretan antzina basiliza bat eta gero eliza bat (1646) egon ziren. Dorre exentua, hala eta guztiz ere, 1870ekoa da. Basilikaren kanpoaldean harri ospetsua dago, eta bikotea aurkitu nahi duten pertsonak birak ematen dituzte horren inguruan.



---

### Letona Korta etxola

Toki-Alaitik hurbileko etxola hau saroi baten erdian dago. Saroiak abeltzaintza edota baso erabilerari loturiko finka biribilak dira.



---

### Santa Apolonia basiliza

Santutxu ere esaten dioten basiliza hau propietate sendatzaileak omen dituen iturri baten ondoan eraikita dago. Barruan, Erremedioen Andre Mariaren eta Santa Apoloniaren irudiak daude. Basiliza hori San Antoniorekin lotzen duen galtzada 1635ekoa da eta oraintsu berrituta dago.

---

### Vera Cruz eta Kristo Santua basiliza

Errege-bidearen ondoan eta inguruan dagoen guruzpidearen amaieran kokatuta dago; basiliza 1665ean berreraiki zuten, elurte handi batzuek suntsitu ondoren. Santutxu-basiliza zen eta, bertan, erromesak biltzen ziren, Santutegirako galtzaren azken zatia oinutsik egiteko.



### Urkiolako elur-zuloa

Santutegitik hurbil, aparkalekurako errepidearen ondoan, Urkiolako antzinako elur-zuloa dago. Orainsu konpondutako egitura zilindrikoa da, lurzoruan egina, eta hormak harlangaitzez estalita ditu (gaur egun, zarpiatuta). Putzua horma txiki batekin inguratuta eta bi hegaleko teilapearekin estalita dago. Ez da XVII. mendekoa baino lehenagokoa, merkataritzako bide honetako produktu batzuen kontserbaziorako elurra Erdi Arora arte erabili bazen ere.



---

### Paisaia

Ibilbidean zehar Anboto mendilerroko ikuspegi panoramikoak aurkituko ditugu. Ibilbidearen amaieran, hiru gurutzeen ondoan, behatoki naturala dago, eta bertatik, ikuspegi bikainak daude: Alluitz, Aitz-txiki, Untzillaitz, etab.



---

### Guruzpidea

Nazionaletik Santutegira igotzen den errepidetik Guruzpide polita abiatzen da, behatoki naturaleraino, eta bertan hiru gurutze handi daude; bertatik, inguruko mendien eta Urkiolako igoeraren gaineko ikuspegi bikaina dago.





## EKIPAMENDUAK

### Atsedenekua

Urkiolatik Otxandiorako errepidearen ondoan, Aldazitalako atsedenekua aurkituko dugu, eta bertan mahaiak, aulkiak, erretegiak, iturria eta abar daude.



### Haurren jolasak

Atsedenekutik hurbil haurren jolasak daude.

### Aparkalekua

Santutegiaren eta atsedenekuaren ondoan aparkalekua dago.



## ZERBITZUAK

### Ostatuak

Santutegiaren ondoan aterpea dago, eta taldeentzako erreserbak egiten dira (94 681 41 51).  
Buenos Aires landetxea ere bertan dago (94 681 20 09).

---

### Tabernak eta jatetxeak

Santutegitik hurbil, janariak ematen dituen taberna bat eta zenbait jatetxe daude.

---

### Toki-Alai Interpretazio Zentroa

Urkiolako Parke Naturalari buruzko informazio guztia Saibiren landan dagoen Zentroan aurkituko dugu; Urkiola mendatean bertan (jaketxeen artean) irteten den bide batetik heltzen da Zentrora. Barruan, parkearen ezaugarriak azaltzen dituen erakusketa iraunkorra aurkituko dugu; besteak beste, Mugarra mendiko sai arreak ikusten dira denbora errealean, bertan kokaturiko kamera bati esker; gainera, Anbotoko haitzulo batean aurkituriko hartz fosildu baten hezurdura eta abar ere ikusi ahal izango ditugu.

---

### Garraio publikoa

Gasteizetik Durangorako autobus linea bat dago eta geraldia dauka Urkiolan.

---

## OHARRAK